

# DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 270. zenbakia. 2018ko iraila

**Jon Gisasola,  
pentatloirako  
prest**





**IRAZABAL**  
clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Dokorea

**Familiaren Osasuna**  
**Zure familiaren ahoaren osasunaz**  
**arduratzen garelako**  
**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Dokorea.**

**Astehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

San Martin Kulturata 2018

# Bertso jaialdia

Ermua Antzokian, azaroaren 16an, 22.15ean



**Uxue Alberdi**  
**Maddalen Arzallus**  
**Andoni Egaña**  
**Igor Elortza**  
**Sebastian Lizaso**  
**Maialen Lujanbio**  
**Gai-jartzailea:**  
**Maite Berriozabal**



Sarrera: 10€  
Lobiano Kulturgunean, Kutxabankeko kutxazain,  
webgunean eta 944 310 310 telefonoan salgai.



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Estibalitz González  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Jon Gisasola.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
Alicia Lorenzo eta  
Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Artarrai MT,  
Ibai Asenjo,  
Idoia Goikoetxea,  
Estibalitz González,  
Jesus Hoz,  
Leire Hurtado,  
Jasone Izarra,  
Valentin Mugarza,  
Udal Liburutegia  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Piedi  
Eizagirre eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak


*Herritarron ahotik*

**Ume kanta**

## Trena eta trena

Trena eta trena,  
trena trena trena.  
Fio! Fio! Fio!  
Txuku! Txuku! Txuku!  
Aio! Aio! Aio!

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))



# Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4 Leire Hurtado (Mexiko)	KIROLZALE .....17 Ibai Asenjo futbolaria
ELKARRIZKETA .....5-7 Idoia Goikoetxea	IRITZIA .....18 Eta zuk zer diozu?
MALLABIAN ZER? .....8-9 Jon Gisasola pentatloian	ZORION-AGURRAK .....19 Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER? .....10 AEK-k euskaltegi berria izango du	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN.....12-15 Euskaraldirako bilerak hasi dira	SAREAN GALDEZKA .....21 Ordu aldaketa, bai ala ez?
BOTEPRONTOAN.....16 Raul Goitandia	URRIKO AGENDA.....22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Leire Hurtado

**Uztailean joan eta 2019ko ekainean bueltatuko da Leire Hurtado Mexikotik. Bidaiari aurreiritziz beteta ekin zion arren, badoa egokitzen eguraldira, janarira eta mexikarren hitz berezietara.**

**- Zenbat denbora daramazu Ermutik kanpo?**

Hilabete gutxi batzuk. Uztailean etorri nintzen Monterreyra, graduako hirugarren maila hiri honetan egiteko aukera eman zidalako Euskal Herriko Unibertsitateak. Eta hango neska batekin etorri naiz.

**- Erabaki erraza izan zen?**

Nahiz eta erabaki zaila izan, bizkor erabaki nuen etortzea. Duela pare bat urtetik hona, banekien Latino-amerikako edozein lekutara etorri nahi nuela denboraldi baterako. Burokatikoki zaila izan zen. Urtebete hemen egoteko bisa atera behar da, eta prozesua ez zen baxter erraza izan.

**- Nola imajinatzen zenuen Monterrey? Aurreiritzirik bazenuen?**

Jendearen aurreiritziek asko eragin zidaten. Narkoak, ziurtasun eza eta delinkuentzia hitzak agertzen zi-

ren nonahi Monterreyko albisteak irakurtzean, eta horregatik beldur piska bat eduki nuen hona etortzean.

**- Eta espero zenuen bezalakoa da?**

Hangoarekin alderatuta oso ezberdina da guztia, baina ez delinkuentzia edo narckoengatik. Hemen ezin duzu pikanterik gabeko ezer jan; eta pikatzen ez duela esaten badizute, ezin diezu kasurik egin, denak pikatzen du! Eguraldiarekin ere txarto pasatu dut. Orain apur bat freskatu du, baina lehenengo hilabetean ezin nintzen kalera atera beroagatik.

**- Ondo moldatzen zara bertako gaztelerarekin?**

Gazteleraz ederki moldatzen naiz hemen, euren ama-hizkuntza baita. Mexikoko hitz bereziak badaude, baina ez dago komunikazio arazorik. Badauzkate guk ezagutzen ez ditugun hitzak, eta oraindik molda-



Monterreyko Unibertsitate Teknologikoaren aurrean, Leire.

tzen ari naiz, baina ez daukat arazorik ulertzeko.

**- Zerbait botatzen duzu faltan?**

Gauza asko! Janaria gehien bat, kar-kar. Hemen janaria oso gozoa da, baina oliba olioia eta arrain freskoa faltan botatzen ditut. Kalera oinez irtetea ere, ibiltzeko, asko botatzen dut faltan, hemen guztiak autoz edo Uber bidez joaten direlako leku guztietara, eta espaloiak ez dira oso fidagarriak. Eta noski, familia, lagunak eta nire katamixarrak askotan etortzen zaizkit bu- rura.

**- Nolakoa da zure egun arrunt bat?**

Normalean, goizeko 10:00etan sartzen naiz Unibertsitateera, eta han pasatzen dut egun guztia. Klaseak batzuetan 21:00etan amaitzen ditut! Asteburuetan bidaiak antolatzen ditugu edo lagunekin elkartzen naiz, zerbait egiteko asmoz.

**- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?**

Datorren urtean Ermura bueltatu behar naiz Unibertsitateko gradua amaitzera, baina etorkizunean ez dakit han geratuko naizen edo ez... Auskalo!



**SAN ANTONIO**

**OKINDEGIA  
GOZOTEGIA**

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**

**Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA  
HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**

1968tik Ermua euskalduntzen



Idoia Goikoetxea, Urko Punta Elkarteko kidea:

## “Leiho bat mundura zabaldu nahi diet Timbuktuko emakumeei”

Hogeita bost urte baino gehiago daramatza elkartasun proiektuetan murgildurik, baina iaiztik hona, bitartekorik gabe dihardu Idoia Goikoetxeak. Timbuktuko emakumeen bizi-baldintzak hobetzen tematu da, eta xede hori lortzeko dirua biltzea ezinbestekoa du. Aspaldian ditu liburuak salgai bere arropa-dendaren kanpoaldean; orain, gainera, benetako liburutegia atondu du bere beste dendaren txoko batean, gai ezberdinei buruzko liburuaz bete ditu apalak. Aldi berean, Timbuktun zuhaitzak landatzeko babesle bila dabil. Besteei bizitza samurtu nahiak atsekabe ugari ekarri dizkio emakume honi, baina gizakiarengan konfiantza osoa du oraindik.

- *Helburu solidarioak dituen liburutegia zabaldu berri duzu zure denda batean. Zertan datza?*

Liburuak irakurri eta erosteko leku atsegina da, baita bilerak eta hitzaldiak antolatzen, edo ikastaroak emateko ere.

- *Beheko dendan ere liburuak dituzu kalean salgai. Nolatan bururatu zitzazun liburuen kontu hau?*

Elkartasun proiektuak aurrera ateratzeko dirua behar dugu, horregatik, nire liburuak atera nituen kalera. Eta bat-batean jendea liburuak ekartzen hasi zen. Harrituta nago! Bolumena itzela da! Ez nuen uste Ermuan horrenbeste liburu zegoenik. Ez dakit guztiak irakurritako egongo diren! Horrenbeste liburu batuta, liburutegia zabaltzea pentsatu nuen. Ez dut nahi jendeak liburuak ekartzea bakarrik, baizik eta erostea ere. Azken finean horren xedea dirua biltzea da.

- *Nora bideratzen duzu bildutako diru hori?*

Hainbat proiektu babestu ditugu, baina 2008tik 2017ra Katiko eskualdean egin dugu lan batez ere (Maliko hiriburutik iparraldera), Jesús Martínez Presa misiolari iruindarraren birtartez. Urtegiak eraiki izan ditugu batez ere. Urtegiok ura jasotzen dute euri garaietan, ur hori lurrean sar-



tzen joaten da apurka-apurka, eta gerora putzuetatik ura ateratzeko aukera dute bertako komunitateek.

- *Ze dela-eta eten zenuen misiolariarekin harremana?*

80 urte baino gehiago zituen, eta erretiratu egin zen. Betidanik elizaren birtartez egin izan ditugu proiektuak, berme bat ematen zigulakoan, baina nik baneukan beste gauza batzuk egiteko gogoia.

- *Eta non zabilta orain?*

2017az geroztik Timbuktu zentratu gara, Malin. Maliko iparraldea etengabeko gerran dago, intentsitate gutxiko gatazkak deitzen diren horiek. 2012an intentsitate handikoak bihurtu ziren, Azawadeko indepen-

dentzia aldarrikatu zenean, eta orain intentsitatea gutxitu egin da berriro ere. Oso leku ezaguna da, historia eta ondare itzela duena, Gizateriaren Ondare izendatua 1988tik. Baina 2012a eta gero, jende asko joan zen, basakeri mordoa egin ziren, eta leku arriskutsua da. Turismoaz gain, biztanleek ez dute inolako baliabiderik. Basamortuaren atea da, eta Niger erreka bertaraino heltzen bada ere, nekez bizi daiteke nekazaritza. Bizibaldintzak oso gogorrak dira. Maliko gobernuak abandonatu egin ditu, eta gune arriskutsua da zuriontzako.

- *Zein da emakumearen egoera?*

Ez ditu baldintza onak. Mutilazioa praktikatu da, adibidez, eta alargun gertatzen direnek euren senarraren anaiarekin ezkondu behar dute nahitaez. 2014az geroztik inboluzioan bizi dira, talde jihadistak asko daudelako.

- *Horregatik erabaki duzu eurekin lan egitea?*

Beno, haren kokapenagatik batez ere, borondatezko lankideentzat eta GKEentzat bertara heltzea ezinezkoa delako.

- *Eta nola lortzen du Urko Puntak bertaraino heltzea?*

Kasualitatez, Bubakar (nire semearen aita) hil eta gero, Timbuktu mutil bat ezagutu nuen, Bubakarren langilea zena azoka txikian, eta gaur egun nire langilea dena: Issa Kaye. Berak proposatu zidan Timbuktu zerbaitek egitea eta interesgarria iruditu zitzaidan. Bertakoa da, eta erraz joan daiteke.

- *Zer egin duzue azken urte honetan?*

Issa Kaye bere auzoko emakume taldearekin harremanetan jarri zen, elkarte sortu zuten, eta zabor-bilketan hasi ziren lanean. Aspalitik gobernuak ez da ez horretaz, ez beste gauza askotaz arduratzen Timbuktu.

**“Interneti esker, euren ekonomia hobetzeko moduak topatuko dituzte”**



Publizitatea:

**DROGETEN** ITTURI

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com



Orduan, Urko Puntak dirua bidali zien, zaborrak jasotzeko atoidun motorra eroszeko. Bestetik, lokala alokatzeko lagundu genien, hainbat helbururekin: bilerak egiteko, ekonomatu txikia ipintzeko, mintzategi bat, eta Malin ipini daitekeen Interneterako konexiorik onena.

**- Horrenbeste diru ematen dute liburuek?**

Jendearen dohainez gain, Udalaren kooperazio diru-laguntzak ere baditugu.

**- Eta Internet izatea hain ezinbestekoa da Malin?**

UNEDeko liburu bat irakurtzean konturatu nintzen teknologia berriak herrien garapenerako oso baliagarriak direla, eta ezagutza eskubide unibertsala da. Eta Timbuktuko emakumeek ez dute leihorik mundura. Horregatik proiektore bat, pantaila eta ordenagailua erosi diegu. Horri esker, euren baldintza ekonomikoak hobetzeko moduak ikasi ahalko dituzte autogestioa-

ren bitartez, zuriok nola egin behar duten azaldu barik (gerora saldu ditzaketek gaitetak nola egin, nola erein patatak zakar poltsetan...).

**- Eta etekina ateratzen hasi dira jada?**

Oraindik ez. Momentu honetan ekipo guztia Bamakon dago, Timbukturaino heltzea abentura da! Garraio enpresek ez dute nahi Bamakotik Timbuktura joan, bide arriskutsua delako (talde armatuak daude, jihadistak, bidelapurak, pertsonen kontrako minak...). Orduan, bururatu zitzaidan Issa Kayeri proposatzea, eta furgoneta zaharra erosi genuen ekipoa berak eramateko.

**- Zenbat kilometro dago Maliraino?**

Kilometro kopurua ez da arazoa, lapurrak baizik. Extremaduran grua batek 1.000€ kobratu zizkion furgoneta zati batean eramateagatik! Moroko eta Mauritania sartzeko, nahi dutena kobratzen dute muga-zerge-

## “Urteak daramatzat migratzaileek pairatzen dituzten injustiziak oso gertutik ikusten”

tan. Horrez gain, batez ere Mauritania, polizia kotxea hustu eta nahi duena kobratzen du. 1.500€ eman nizkion, diru gehiago bidali nion, eta berriro ere sosik gabe dago.

**- Diru gehiago bidali behar, orduan...**

Bai, gainera orain beste motor bat erosi nahi dute, ikus-entzunezko ekipoa beste elkarteei eraman ahal izateko. Horrela, hango elkarteen arteko loturak sendotzeko aukera legoke, eta hori oso aberasgarria da. Aldi berean, Interneti esker, hemengoekin harremanak sortu daitezke, Skype bitartez.

**- Skype bitartez oraindik ez, baina lokarri horiek martxan dituzu jada, ezta?**

Bai, erlazioen harira beste proiektu bat bururatu zitzaidan: zuhaitzena. Hango etxeek barruko patioa izaten dute, eta proposatu nien bakoitzak zuhaitz bat aukeratzeko. Horrela, patioa bizitzeko leku samurrago izango litzateke. *Prosopis, melia, moringa* eta *etagere* aukeratu zituzten guztiek. Orain, Ermuko bizilagunek aukera dute hango emakumeek aukeratutako zuhaitz baten babesle izateko. Zuhaitza landatzeko 3€ behar dira, eta dagoeneko 81 zuhaitzetatik 35 zuhaitzek babeslea dute.

Urtebeteko epean, zuhaitzaren argazkia bidaliko diote hangoek bere babesleari. Zuhaitza hazita dagoenean, nire ideia da horren azpian ortu txikiak egitea, baina hori ez diet oraindik esan!

**- Malin egon zara?**

Bai, bi bider, nire senarrek, Bubakarrek, eta sekulako lotsa pasatu nuen. Franco bezala sentitu nintzen, urtegiak inauguratzen zituenean. Izugarriko harreman egin ziguten!

**- Harro egoteko moduko lana egiten duzu-eta...**

Askotan oso pozgarria da, baina 28 urte daramatzat honetan, eta egunero dago zerbait: egunero haserre berri bat, administrazioarekin, etorkinei ipintzen zaizkien trabekin... 28 urte migratzaileek pairatzen dituzten injustiziak oso gertutik ikusten. Baina ezin dut lan hau laga, DNAn daramat.

**- Eta zuk ere injustiziak jasan dituzu?**

Ba begira, nik jende guztiarengan daukat konfiantza, zartada ematen didatenera arte. Amorrutik handia ematen dit, baina beti esaten dut, atzetik datorrenak ez duela zertan ordaindu aurrekoak egin didana. Uste dut konfiantza dela mundua aldatzeko bide bakarra, eta ez diot horri uko egin nahi.

Dorleta Vidal



HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
 2012ko BILBOKO  
 TXORIZO TXAPELLETAN  
 BIZKAIKO  
 TXAPELDUNAK  
 PROBLEMA 3-943170563  
 ERMUA

**ZERMIK**  
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
 Usaetxe plaza 6-8, behea  
 Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)  
 Telf: 943 23 10 12

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

Jon Gisasola "Zelai V", harri-jasotzailea:

# "Lana ahalik eta txukunen amaitzea da nire nahia"

Irailaren 29an hitzordu berezia izango dute herri-kirol zaletuek Azpeitiko zezen-plazan, Euskal Pentatloia egingo baita. Sei lagun ausart lehiatuko dira, tartean Jon Gisasola mallabitarra. Harri-jasotzean aditua eta aizkoran aritua da "Zelai" handiaren seme gaztea. 22:00etan hasiko da proba, eta zuzenean ikusteko aukera egongo da (ETB1).

**- Badira 28 urte pentatloia egiten ez denetik...**

Bai, eta azken pentatloi hura oinarri hartuta prestatu dugu Euskal Pentatloi Sari hau. Kirolariok ipini ditugu lanak eta arauak. Federazioak ere lagundu digu, baina proba hau legez araututa ez dagoenez, ezin da txapelketa izan, saria izango da.

**- Zeintzuk izango dira egin beharrekoak?**

Harri-jasotzean, 100 kiloko bola 25 bider altxatzea; gizon-proban, 400 kiloko harriarekin 2 plaza egitea; aizkoran, 3 kana-erdiko moztea; 50 kiloko txingekin, 6 plaza egitea; eta 3 kilometro korrika egitea.

**- Arria V, Arria VI, Xabier Zaldua, Aratz Mugerza eta Luis Txapartegi izango dituzu aurrean. Ezagutzen dituzu?**

Bai, aizkolariak dira bos-tak. Nik 7 urte daramatzat aizkoran ibili barik, eta bes-teen mailatik urrun nago, baina oinarria badaukat. Aldiz, besteek ez dute egingo nik beste harriak altxatzen.

Korrika egiten ere denbora galduko dut. 3km. ez dira asko, baina ez nago ohituta asfaltoan korrika egitera. Arria Vlak eta Zalduak, adibidez, korrika asko egiten dute. Gizon-probetan, aldiz, ez gara inor aritu.

**- Zein emaitza espero duzu?**

Lana bukatzea da nire nahia, ahalik eta txukunen. Eta ahal bada, azkena ez gertatzea. Ez daukat ezer galtzeko, eta asko irabazteko: errekonozimendua eta esperientzia. 19 urterekin indarra eta sasoia baditut, baina esperientzia falta zait.

**- Zer dela-eta bururatu zaizu honetan parte hartzea?**

Duela 35 urte antzerako proba egin zen, eta aitak parte hartu zuen. Denetik egiten jakin behar duzu, osoa, erabatekoa izan behar da. Aitak dioenez, 3 edo 4 urte nituenean aizkoran hasi nintzen nire kabuz, bera plazetan ikusita. Eta 12 urterekin harrira aldatu nintzen. Harriarekin eta aizko-



rarekin ibili naizenez, proba hau aproposa izan zitekeen niretzat. 3 hilabeteko epean asko hobetu nintzela ikusi zuten aitak eta etxekoek, eta parte hartzea erabaki genuen.

**- Zer erakutsi dizu aitak?**

Dena. Txikitatik berarekin ibili naiz plazaz plaza, eta herri-kirolen mundua erakutsi dit. Harri munduan, dena. Berak entrenatzen nau, eta berari esker nago ni hemen. Etxean ere nahi beste harri ditugu, osaba eta lehengusuak aizkoran dabil-tza... Horrez gain, uste dut horrelako lana egiteko gaitasunak baditudala.

**- Publiko eta telebistaren presioa igarriko duzu?**

Ez naiz urduri jartzen. Gipuzkoan Bizkaian baino indar handiagoa dute herri-kirolek, jendeak ulertzen du, animatu egiten du, eta hori igarri egiten da, onerako.

**- Lehiaketetan parte hartzen ohituta zaude?**

Umetan ez nuen lehiatzen, baina orain dela bi urte Gazte Mailako Txapelketan parte hartu nuen, eta bigarren postua lortu. Eta iaiz Euskal Herriko Txapelketan 21 urteko azpikoan kategorian irabazi nuen harria altxatzen.

Dorleta Vidal

Komunitateak

## San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

NEREA ÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

## ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

## SAGARDUI

poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



## ESKOLAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO LANAK EGIN DIRA UDAN

Umeen opor garaia aprobetxatuta, Eskolako sarbideak egokitzeko lanak egin ditu Udalak. Horiei esker, arrapalak egin dira gurpil-aulkietan doazenentzat, eta hobekuntzak egin dira eskola ondoko gimnasioan. Ekainaren 25ean hasi ziren obrak, eta irailaren 14an bukatu.



## MALLABIA ETA ERMUA LOTUKO DUEN ESPALIOA ERAIKITZEN ARI DIRA

Mallabitik Ermura eta Ermutik Mallabira joateko eraikitzen ari diren espaloiaaren obrak oso aurreratuta daude, Mallabiko alkate den Igor Agirrerren esanetan. Uztailean hasi ziren lanak, eta 6 hilabeteko exekuzio-epea badute ere, "baliteke lehenago bukatuta egotea".

## NESKA ETA MUTILEN FRONTENIS TXAPELKETETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALDU DA

AD Mallabia FTK eta Mallabiko Udalak martxan ipini dituzte aurtengo frontenis txapelketak. Nesken kategorian bikotea jokatu da, herriko frontoian, urriaren 27an. Izena emateko 669028718 telefonora deitu beharko da urriaren 25a baino lehen (16€ bikotea). Irabazleek kopa eta 200€ jasoko dituzte; bigarren postua eskuratzen duen bikoteak, kopa eta 150€. Mutilen kategorian, buruz burukoa jokatu da, teniseko pilotarekin. Izena emateko, telefono zenbaki berera deitu beharko da, irailaren 30a baino lehen. Bazkideek 5€ ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek, 5€ gehi euro 1 jokatu-tako partiduko bakoitzeko.

## HELDUEI ZUZENDUTAKO PALA IKASTAROA ANTOLATUKO DA

Urriari hasi eta abendura arte, pala ikastaroa eskainiko du Leire Etxanizek Mallabiko frontoian. Asteartetan burutuko da, 19:00etatik 20:00etara, eta 10€ko prezioa izango du hilerero. Irailaren 28a baino lehen eman beharko da izena Kultur Etxean.

## URRIAN HASIKO DIRA MALLABIA I KIROL ETXEKO URTEKO IKASTAROAK

Sei ikastaro eskainiko ditu Mallabiko kiroldegia 2018/2019 denboraldian: mantenimendu gimnasia (astearte eta ostegunetan 10:00etatik 11:00etara), hipo-pilates (astearte eta ostegunetan 11:00etatik 12:00etara eta astelehen eta asteazkenetan 18:30etik 19:30era), txirrin-bike (astelehen eta asteazkenetan 19:30etik 20:30era), body combat (astearte eta ostegunetan 19:00etatik 20:00etara) eta zumba (astearte eta ostegunetan (20:00etatik 21:00etara)). Kiroldegiko atarian eman daiteke izena, 943179848 telefonoan edo mallabikopilotalekua@hotmail.com helbidean.

## BERBALAGUNEN IZENA EMATEKO EPEA LASTER ZABALDUKO DA

2018/2019 ikasturteko Berbalagun egitasmoa prestatzen dihardute arduradunek. Parte hartu nahi duten mallabitarrek, urriaren 1etik aurrera eman beharko dute izena: 663070492 telefonoan edo ermua\_berba@aek.eus helbidera mezua bidalita.

Dorleta Vidal

**Modas Candé**  
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia  
T 665 703 904  
modascande@gmail.com

**FUB** Mediku psikiatra  
Psikoterapia psikoanalitikoak  
Psikosomatika

**Fernando Urizar Barandiaran**

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04  
Bailen kalea, 9-1 ez. BILBO. Tel: 94 416 49 06  
furizar1@yahoo.com

**ZK**

**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
PLAN BABESERAKO  
ORDIDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

# AEK-k Euskaltegi berria zabalduko du Ermuan

**Irailaren 27an, osteguna, Kaltxango AEK Euskaltegi berria inauguratuko da, 19:00etan. Zeharkalea 14an kokatuta, 300m<sup>2</sup>ko azalera izango du, eta egungo Euskaltegiak dituen gabeziei aurre egingo die, ikasle eta irakasleei azpiegitura hobek eskainiz.**

**B**izkaia Etorbideko lokalean “20 urte zoragarri” igaro badi-tuzte ere, Kaltxango AEK Euskaltegiak kokapen berria izango du irailaren 27tik aurrera. Ia 300m<sup>2</sup>ko azalera duen lonjara aldatuko da, Zeharkalea 14ra alegia, eta langile zein ikasle kopuruei egokitzen diren azpiegiturak izango ditu: didaktikara dedikatzen diren langileentzako gela bat, bulegoa, artxiboa, irakasle-gela, autoikaskuntza-gela, *officea*, eta 4 ikasgela. Gainera, areto handia edukiko du, bi ikasgeletan banatu daitekeena behar izanez gero.

“Kaltxangoko euskaltegia zabaldu zenean, AEK diruz

estu zebilen, eta baimena eman ziguten lokala oso merkea zelako —dio Euskaltegiko irakaslerik beteranoena den Juanmi Bravok—. Baina txikia zen (140m<sup>2</sup>), estua, bi pisutan banatuta zegoen, goiko pisuak oso sabai baxuak zituen, gelak berehala bertzen ziren klaseak hastean... deserosoa zen”.

AEK horren jakitun omen zen, eta bere egoera ekonomikoa hobetu dela aprobeztatuta, lokal berri bat atontzeko baimena eman die Kaltxangokoei. “Uste dut merezi dugula, lan txukuna egin dugulako urteetan. Herrian fama ona dugu, kalitatezko klaseak ematen ditugulako. Eta konpetentzia izanda ere,



ikasle kopuru oso altua mantendu dugu —dio Bravok—. Orain merezitako Euskaltegia izango dugu, eta han jubilatuko gara!”.

Egiten duten lanarekin asebeteta badaude ere, lokal honek eskaintzen dituen aukerak aprobeztatuta, “beste jauzi bat” ematea dela euren nahia adierazi du Juanmi Bravok. Jakin badaki euskaltegiatako ikasle kopurua gutxitzen ari dela eskola publikoaren eraginez. “Oraindik ere asko dago egiteko. Jendea tituluen kontuarekin kezkatuta dago, eta gure erronka da azterketak gaitzen laguntzea baina baita euskararekiko ilusioa eta motibazioa piztea”.

#### **Gau-eskolak oinarri**

AEKren bigarren lokal ofiziala izango da Zeharkaleakoa. Baina erakunde honen historia Ermuan aintzinetik dator, gau eskoletan oinarritzen delako. “Francoren ga-

raian jendeak doan irakasten zuen euskara, ahal zen tokietan: leku pribatuetan, elizak utzitako lokaletan... Ermuan, Gorka Olaizola, Txebis Gorritxategi, Mari Feli Manzidor eta Iñaki Arregi ibili ziren gau eskolak ematen, besteak beste”.

Demokrazia heldu zenean, gau eskola horiek Euskal Herrian antolatu ziren, eta AEK sortu zen: Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea. Orduan, beste hamarkada bati hasiera eman zitzaion, eta AEK-k herriko hamaika lekutan eman zituen klaseak: Iñaki Arregiren amak Santa Anan utzitako lokal batean, geltokiko eskoletan, gaur egun Eskolabarri dagoen eraikinean, udan Teresa Murgan... “Garai hartan ikasle asko zeuden. Orain gure bezeria jaitsi da, eta euskarari dagokionez, hori seinale ona da”, dio Bravok.

Dorleta Vidal



**uriarte asesores** ✓

Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia



Zubiaturre, 2 · 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com

EDIFICIO

# Kaltxangoikoa

ERAIKINA

- 3 logelako 26 etxebizitza
- logela guztiak bikoitzak
- Garajea eta trastelekua aukeran
- Ikuspegi zabalak dituzten terrazak handiak garaieran
- Konexio bikainak

82 m<sup>2</sup>  
erabilgarriak  
dituzten  
etxebizitzak +  
terrazak  
190.000 -tik  
aurrera

## Ermuan etxebizitza paragabeak.

Metraje handiak;  
egongela guztiak  
20 m<sup>2</sup> -tik gorakoak  
eta logelak  
10 m<sup>2</sup>-tik gorakoak



Bizkaia etorbidea 10, bajo  
48260 Ermua

943 31 66 11  
689 66 08 01  
696 02 52 58

elkano GROUP

**HITZALDIA ESKAINIKO DU PELLO JAUREGIK URRIAREN 2AN**

EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatean irakasle den Pello Jauregik solasaldia eskainiko du Lobianon (19:00etan). “Ermuan, euskaraz bizitzeko prest?” izenburua izango du saioak, eta amaiera emango die aurtengo Berbetan Jardunaldiei. Antolaketan parte hartu dute Euskal Birusak, Udal Euskaltegiak, Kaltxango AEK Euskaltegiak, Ongarai Eskolak eta Eskolabarrik, Ermuko Udalaren babesarekin.

**BERBALAGUNEN IZENA EMATEKO EPEA LASTER ZABALDUKO DA**

Berbalagun egitasmoaren 17. edizioan parte hartu nahi duten ermuarrek, urriaren 1etik aurrera eman beharko dute izena (663070492 telefonoan edo ermua\_berba@ae.es helbidera mezua bidalita). Proiektuaren arduradun Juanmi Bravok adierazi duenez, aurtengo edizioa berezia izango da, “Euskaraldiarekin bat” egingo dutelako. “Urte berean euskararen praktika gauzatzen duten bi egitasmo hauek izango ditugulako Ermuan”.

**Jasone Izarrak irabazi du Ermuan Bagarako argazki lehiaketa**

Hogei argazki inguru aurkeztu dira Ermuan Bagarak udan antolatu duen Argazki Lehiaketara. Originalena, epaimahaiaren arabera, Jasone Izarrarena izan da, eta horri esker 100€ko afariaz gozatzeko aukera izango du. Argazkiarekin batera, honako testua bidali zuen: “Zumaiako Flysch eta itsasoan altxor ederrak genituela bagenekien, baina arrantzara joan eta Ermuan Bagarako kamiseta harrapatzea ez genuen espero. Sorpresa izugarria hartu dugu”. Lehiaketako argazki guztiak ikusteko, Ermuko Euskaltzaleen Sareko Facebookera edo euskaraldiaermuan.wordpress.com helbidera jo beharko da.

**Euskaraldia ekimena prestatzeko bilerak abiatu dira**

“Euskaraldia, 11 egun euskaraz” ariketa soziala burutuko da aurten Ermuan (azaroaren 23tik abenduaren 3ra), eta berau prestatzeko bidean daude arduradun zein herriko boluntarioak. Irailaren 19an batu ziren aurrenekoz, eta guraso, merkataria eta kirol-elkarteetan eragiteko erabakia hartu zuten, proiektuaren koordinatzaileak azaldu duenaren arabera. Azaroaren 23a bitartean, bilerak egingo dituzte 2 astetik behin; hurrengoak, beraz, urriaren 3an izango da (Lobianon, 19:30ean). “Bilera irekiak dira, eta talde eta norbanako guztiei dei egiten diegu, talde anitza eratu nahi dugu”, dio koordinatzaileak. Gainera, Euskaraldirako izen-emate epea zabalik dago jada. Ermuan Bagara egunetan, 294 *ahobizi* eta *belarriprestek* parte hartu zuten, eta Euskaraldirako izen-ematean jende gehiago batu nahi dute. Herritarrek izena eman dezakete jada Facebook bitartez edo euskaraldiaermuan.wordpress.com helbidean.



**Ferreteria**  
**ANBOTO**  
Burdindegi

Orain  
**KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

**Dejate QUERER**  
BERRIA ERMUA

Bitsi-denda Tailor propioa Edojurdenda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23  
E-maila. enolimp@hotmail.com  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

**Horacio Decoración**  
VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

**UDAL**  
**EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak · clases de euskera



# 18/19

Matrikula epea zabalik  
[www.udaleuskaltegiak.eus](http://www.udaleuskaltegiak.eus)

**ASPALDIKO!**

B1, B2, C1  
Klaseak astean 3 egunetan  
(2 ordu egunean)

**EUSKARA**

A1, A2  
Klaseak astean 2 egunetan  
(2'5 ordu egunean)

**BERRIRO**

Eskaintza eta ordutegi zabalak  
Txandakako taldeak

**ZURE**

Azterketa ofizialak maiatzean eta urrian  
16 urtetik gorakoentzat

**BIZITZAN.**

Bekak  
Langabetuek eta lehen mailako  
ikasleek matrikularen prezio erdia

## **BULEGO ORDUTEGIA**

09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara

## **ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA**

Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2 solairua  
Tf.: 943 17 09 25

[euskaltegia@udalermua.net](mailto:euskaltegia@udalermua.net)

<http://www.ermua.es/pags/euskaltegia>

**29. SAN MARTIN AZOKAN:**

\* Errifak eskatzeko azken eguna, urriaren 24a

**100€**  
(tabernariak)**50€**  
(dendariak)

=



+



688632874

Errifen takoa eskuratu nahi duten tabernariak 100€ ordaindu (dendariak, 50€) eta laguntzaile bandera jasoko dute. Informazioa: 943179350

**SANTIAGO FUERTESEK  
MARATOI ERDIKO  
TXAPELA JANTZI DU**

Santiago Fuertes ermuarrak Maratoi Erdiko Espainiako Txapelketa irabazi zuen Málaga, 65 urtetik gorako kategoria. Ordubete, 31 minutu eta 40 segundo behar izan zituen 21km. egiteko. Marka horri esker, Europako 3. eta munduko 5.a izan zen.

**DAVID LÓPEZEK 200  
KILOMETROKO  
LASTERKETA BURUTU DU**

Deiadar Xtreme 200k lasterketaren lehen edizioa burutu zen irailaren 14tik 16ra, eta bertan David López ermuarrak parte hartu zuen. Sollube, Koltiza, Ganekogorta, Gorbeia eta Oiz mendiak zeharkatzen ditu lasterketa horrek, 200km.ko bide amaigabea. Davidek 42 ordu, 16 minutu eta 38 segundo behar izan zituen mendi guztien gailurra zapaltzeko, eta 16. postuan heldu zen helmugara. 59 lagunek bukatu zuten proba; 25, aldiz, bukatu baino lehen erretiratu ziren.

**Eibar SDek irabazi du Nesken Kadete  
Mailako I Futbol Txapelketa**

Irailaren 15ean burutu zen Nesken Kadete Mailako I Ermuko Txapelketa. Euskal Herriko talderik puntakoenek hartu zuten parte (Eibar SDK, Tolosa CFK, CD Lakuak, Bizkerre FTK eta Oiartzun KEK) eta ligaxka jokatu zuten lehenik eta behin. Oso berdinduta egon arren, Eibar SD eta Tolosa CF heldu ziren finalera, eta eibartarrek irabazi zuten finala 2-0. Talde horretako Irati Martin izendatu zuten txapelketako jokalaririk onena, eta Tolosako Elene Arrubarrenak gol onenaren saria jaso zuen. "Talde guztiek pozik bukatu zuten —diote antolatzaileek—. Izan ere, kiroltasun handiko giroa bizi izan zen jardun osoan zehar".

**Liburutegiak hainbat irakurketa klub ipiniko  
ditu martxan**

Udal Liburutegiak euskarazko irakurketa kluba abiatuko du urrian. Liburu bera irakurri duten lagunez osatutako bilera hauetan, testuei buruz mintzatzen da eta iritziak eman, besteak beste. Hilaren lehen astelehenetan batuko da taldea, urrian hasi eta maiatzera bitartean, 19:30etik 21:00etara. Parte hartu nahi dutenek 943179212 telefonoan edota bibliotecarmua@udalermua.net webgunean eman beharko dute izena. Horrez gain, komikien irakurketa kluba egingo da aurten. Kike Infame izango da dinamizatzailea, eta hileko lehen astearteetan bilduko dira (urriak 2, azaroak 6 eta abenduak 11), 19:00etatik 20:30era, Lobianon. Gainera, urtero bezala, gaztelarazko, ingelesezko eta frantseseko irakurketa klubak egingo dira.

**esanline**

846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

esanline.es

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

**CITROËN**

**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14

## Eskerrik asko Txikurizaleok!

Josean Larrañaga, Iñaki Gabilondo, Alberto Arginzoniz, Laura Olabe, Maitane Mugerza, Paule Gorritxategi, Idoia Zamakola, Txebis Gorritxategi, Eli Areitioaurtena, Juanjo Gorritxategi, Luken Gorritxategi, Oier Viteri, Alex Ugena, Eider Gisasola, Hiart Redondo, Aroia Lejardi, Jon Saez, Lorea Txapartegi, Mirene Moreno, Naroa Beitia, Julen Erauskin, Elias Uriarte, Esteban Goikoetxea, Mari Jose Goiogana, Bea Ugena, Jon Larrañaga, Endika Goitandia, Paulo Guridi, Unai Rodríguez, Rodol Ugena, Eli Txurruka, Beatriz Narbaiza, Eneritz Arriaga, Araitx Barruetabeña, Gaizka Goikoetxea, Aitor Rodríguez, Jokin Aranburu, Danel Gorritxategi, Aitor Arrizabalaga, Ander Prol, Josu Gómez, Peio Goikoetxea, Maddalen Arenaza, Xabi Goikoetxea, Jokin Uriarte, Jon Sarriugarte, Mikel Yarza, Ander Garciandia, Laura Pascual, Natalia Arrizabalaga, Olatz Santos, Lidia Jiménez, Lidia de Luis, Olatz Arriaga, Lorena Arias, Ainhoa Ganuza, Amaia Arginzoniz, Maria Ormaetxea, Olatz Masié, Idoia Hernández, Oihane Vega, Miren Gorritxategi, Iratxe Odriozola, Tania Alonso, Ruth Diez, Maialen Agirregomezkorta, Oier Zubiria, Ekaitz Amezua, Aitor Garitagoitia, Maddi Gorritxategi, Arantzazu Mugerza, Jose Santos, Jabi Vidal, Aitor Arriaga, Juanjo Solozabal, Josu Cruz, Asier Ibaibarriaga, Ines Lazkano, Santi Aranbarri, Nerea Iriondo, Paul Yarza, Maite Askasibar, Alex Solozabal, Nerea Izarra, Esther Larreategi, Mario Mateos, Yolanda Unamuno, Paki Barrio, Alazne López, Libe Solozabal, Ane Izagirre, Nahia Ruiz, Amaia Sangroniz, Nerea Sarriugarte, Ane Benitez, Ane Arrizabalaga, Maialen Alvarez, Nerea Rubio, Silvia Ganuza, Itziar Unanue, Jose Antonio Unanue (txanga), Carmen Solozabal, M<sup>a</sup> Nieves Antxustegi, Amaia Arriaga, Aitor Gartzia, Alicia Lorenzo, Juan Fernández, Pamela Janice, Marines Txurruka, Gaizka Areitioaurtena, Estibalitz González, Nagore Espilla, gurean muntatzaile, tabernari, sukaldari, garbitzaile, tortilagile edota mezenas legez aritu zareten guzti-guztiori, mila eta mila esker, lagunok!

## XVI. Mendi Jardunaldiak egingo dira urrian

Artarrai Mendi Taldeak XVI. Kirol-Kultur Jardunaldiak burutuko ditu urriaren 9tik 28ra. Alex Txikonen Everest diaporama izango da lehen ekitaldia (19:00etan, Lobianon); hilaren 18an, berriz, *Kilian Jornet: Path to Everest* pelikula ikusteko aukera egongo da (Ermua Antzokian, 20:30ean). Era berean, 3 irteera antolatu dira: Europako Mendietara, hilaren 12tik 14ra; Garazi-Orreagara, 20an; eta Ermua-Elgeta-Ermua ibilbidea bizikletan, 28an. Gainera, rokodromo txikia ipiniko da plazan 27an (17:00etaik 20:00etara).



### II ENPRESA TOPAKETA EGINGO DA IZARRAN URRIAREN 9AN

MIO-Make It Own diseinu estudioak Enpresa Topaketa antolatu du bigarren izarra Centren: "Cada loco con su tema". Espazio berri horren helburua da ekintzaileentzako topagunea izatea eta esperientziak partekatzeko konfiantzazko gune egokia bihurtzea. Arduradunen esanetan, "euren kezkei buruz mintzatzeko aukera izango dute parte hartzaileek, esperientzia onak zein txarrak partekatu, beste batzuen porrot eta arrakastetatik ikasteko". 19:00etan hasiko da, doan, baina alde aurretik izena eman beharko da, [www.cadalococonsutema.es](http://www.cadalococonsutema.es) webgunean.

### SEI TABERNEK PARTE HARTUKO DUTE BIZKAIKO PINTXO LEHIAKETAN

Giroa, London, Mendiola, Kiska, Pata Negra eta Sagarra tabernekin hartuko dute parte Bizkaiko Pintxo Lehiaketan. Irailaren 21etik 30era dastatu ahal izango dira tabernok txapelketarako prestatu dituzten mokaduak, 18:30etik 21:00etara. Sailkatzen direnek, Euskalduna Jauregian egingo den finalean parte hartuko dute, urriaren 1a eta 3a bitartean.

**mari asun**   
LORADENDA  
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**T** XALAPARTA ABERNA  
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!  
Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**URRETA** burdindenda  
\* Etxea \* Giltzak  
\* Tresneria \* Sarrailagintza  
\* Brikolajea \* Kit altzariak  
\* Ervailak  
Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**KARABIXA**  
**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik



# RAUL GOITANDIA

- **Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?**

Gogoan daukat lagunekin futboleko aritzen nintzela Ongarai eta Santa Anako zelaietan. Abeletxe txakurrekin zetorrenean, 40 lagun joaten ginen arrapaladan al dapan behera!

- **Ikasteko aukerarik izan zenuen?**

Armeria Eskolan Elektrizitateko 1. urtea egin nuen, baina ez nuen gustuko.

- **Gaztaroan zer?**

Oso gazte hasi nintzen Bodegan lanean, baina ahal nuen guztietan parrandan iriteten nintzen.

- **Bodegak zure amaren ize-na darama...**

Nik hartu baino lehen, 5 edo 10 urte igaro zituen berak hemen. Eta aurretik, aitak eta osaba batek izan zuten, baina ez zuten ezertxo iraun, laster aspertu ziren.

- **Nola aldatu da Bodega mende erdian?**

Guk hartu genuenean, arandegi hutsa zen. 1.000 litroko barrika mordoa zegoen, eta ontziratu gabeko ardoa saltzen zen, baina txerrikeria bat zen. Ekaitz egunetan, ardoari sufrea bota behar genion ez ozpintzeko. Denborarekin, bestelako gauzak saltzen hasi ginen.

- **Zer da gaur egun gehien saltzen duzuna?**

Ogia, baina lehen baino askoz ere gutxiago. Laurdena ere ez. Aspaldi porroi mordoa saltzen genituen, baina txikiteo gutxi gertatzen da egun.



**Malenon jaioa duela 60 urte, amamaren etxean. Abanto-Zierbenakoa ama, Carmen "La guapa"; Lorenzo, aita, ermuar peto-petoa. Lau anai-arreben artean, bigarrena. Azken 40 urteak Carmen Bodegako barra atzean eman ditu. Elgoibarren bizi den semea dauka.**

- **Bezera fidelak dituzu?**

Bai, jende bera sartzten da egunero.

- **Lan honetan gehien estimatzen duzuna?**

Ez nagoela inoren menpe.

- **Eta gutxien?**

Egunero egin behar dudala lan: zapatu, domeka eta jaiegun guztiak barne. Ezin dut itxi, lehia handia dago.

- **Duela urtebete pasatxo hil zen zuen ama. Jende guztiak ezagutzen zuen...**

Bai, praktikantea zen. Ez zuen ikasketarik, baina tabernan bionbo bat zegoen eta inguruko emakume eta

ume guztiei injekzioak ipini zizkien.

- **Ederra zela diote.**

Carmen "La guapa" deitzen zioten. Koadrilan hainbat Carmen zegoen, eta haien artean ez nahasteko ipini zioten ezizena. Haserretu egiten zen bere lagunari Carmen "La fea" esaten ziotenean.

- **Zer irakatsi dizute gurasoek?**

Upelak garbitzen. Nik sartu behar izaten nuen barrura, eta usaina jasangaitza zen!

- **Aisialdian?**

Ibiltzea gustatzen zait, inguruetatik. Ahal dudanean

presara, Trabakuara, Oizera...

- **Kirolzalea?**

Athleticekoa topera!

- **Egunkaria irakurtzeko ohitura duzu?**

Bai, egunero irakurtzen ditut Gara, El Correo eta Marca. Liburuak ere. *La biblia de barro* daukat orain esku artean. 100 liburu inguru ditut irakurtzeke etxean.

- **Liburuak paperean nahia-go dituzu, beraz...**

Bai, ez zaizkit teknologia berriak gustatzen. Mugikorra dut, baina justu-justu.

- **Zure momenturik bereziena?**

Afalostean telebista ikustea. Ali pachá bezala egoten naiz!

- **Koadrilan ibiltzekoa zara?**

Bai, larunbatero eta igandero haiekin noa afaltzera.

- **Puntuala zara?**

Oso, ez dut jasaten berandu heltzea. Itxarotea tokatzen bazait, ba konformatu behar.

- **Zerk eragiten dizu barrea?**

Edozerk.

- **Eta zerk haserretu?**

Ez naiz haserretzen.

- **Bertuterik?**

Besteek esan beharko.

- **Eta akatsik?**

Burugogorra naizela diote.

- **Euskararekin ez zara animatu?**

Ikasten ibili nintzen, gel-tokiko lokaletan, Txebis Gorritxategi irakasle. Itxi zutenean laga egin nuen.

- **Berriro jaioko bazina?**

Dena aldatuko nuke. Aberatsa izatea gustatuko litzaidake!

Dorleta Vidal

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



optika  
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51



Ibai Asenjo, futbolaria:

# “Nire ametsa futbolari profesionala izatea da”

Oso gaztea den arren, 6 urte daramatza Ibai Asenjok Athleticen jokatzeko. Talde horrekin hainbat bidaia egin ditu jada, azkena uda honetan, Errusiar. Denboraldi honetan Euskal Ligan arituko da, 4. DBH ikasten duen bitartean.

- *Athleticekin hainbat bidaia eta txapelketetan parte hartu duzu, azkene-koa Errusian. Nolako da esperientzia etxetik kanpo?*

Hainbat bidaia egin ditugu, urrutien Turkia, Errusia eta Alemaniara. Esperientzia bakarrak dira, txapelketa horietan maila altua dagoela ikusten da, izugarri gustuko dut joatea. Egun horietan burua txapelketan duzu, eta ez beste gauzetan.

- *Futboleko izan duzun ibilbide guztia aipatuko?*

Mallabiko taldean hasi nintzen areto futboleko jokatzeko, eta bi urte eman nintzen han. Hortik aurrera futbola gehiago gustatzen hasi zitzaidan. Benjaminetan Anaitasuna taldean sartu

nintzen futbol 7 jokatzera, eta beste bi urte egin nintzen. Bitartean, Lezamara joaten hasi nintzen eta gaur arte. Nire seigarren denboraldia da Athleticen.

- *Athleticen entrenamenduak gogorra dira?*

Egunaren arabera da, baina orokorrean jasangarriak dira. Ohitze kontua besterik ez da.

- *Euskadiko selekzioarekin ibilia zara?*

Alebin kategorian ibili nintzen, sub-12 selekzioan. Kantabriaren aurka 2-2 berdindu genuen, gainera lehengo gola sartu nuen. Geroztik ez da egon selekzio-rik. Aurten deialdia egingo da berriro, baina ez diot garrantzi handirik ematen: datorrena datorrela ni pozik nago.

- *Saririk lortu duzu?*

Aurreko urtean ohorezko kadete mailan jokatu genuen eta bigarren postua lortu genuen, beraz, nahiko ondo. Duela bi urte Santutxu eta Antiguokoren aurka Euskadiko Kopa irabazi genuen. Aurten Euskal ligan gaude Eibar, Real eta Alavesen mailako taldeekin batera.

- *Entrenatzaileen inguruan zerbait esateko?*

Entrenatzaile guztiengandik ona den zerbaitekin gertatzen naiz, normalena da eta denekin izan dut harreman ona, ez dago bat bestearen gainetik.

- *Zure bizitzako momentu on bat gogoan duzu?*

Turkian irabazitako txapelketa. Europako hainbat talderen aurka aritu ginen: PSG, Galatasaray eta Roma, besteak beste. Oroitzapen hori ez dut inoiz ahaztuko.

- *Aurrera begira?*

Datorren urtean heziketa fisikoko gradu bat egiteko asmoa dut eta aurrerago



IVEF. Hala ere, nire benetako ametsa futbolari izatea da, nahiz eta jakin badakidan, oso zaila dela.

- *Etxeko babesa duzu?*

Gurasoei, eta orokorrean familiari, dena zor diot: gurasoei eta arrebari beti hor egoteagatik eta laguntza luzatzeagatik; aiton-amonei ere, zaintzeko eta laguntzeko prest egon direlako, eta noski, nire izebari, hor egon delako inork ezin zuen momentuetan.

Armaia Arginzoniz



**PUB YOMY**

**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**

**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Iberikoetan  
espezialistak

**Mayte**

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

Ileapaindegia

**Silvia**  
peluquería

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

943 170474 688819336

# Eta zuk zer diozu?

**I**ritzi artikulu bat idazten hasten naizenean, beti, norbaiten etxe aurrean egongo banintz bezala sentitzen naiz. Ez zait gustatzen besteen etxeetan zapata zikinekin sartzea, horregatik sartu baino lehen ateko alfonbra erabiltzen dut, nahiz eta nire etxean inoiz ez erabili.

Gauza bera gertatzen zait honekin. Nire bizitza pribatuan gai ezberdinei buruz iritzia ematera ohituta nago, lanean, etxean, koa-drilan. Baina iritzia publikoki idaztea, beste gauza bat da. Zurea izatetik, edonorena izatera egiten du salto... eta gaur egun ez dakizu noraino heldu ahal den. Ez dakizu noren etxean amaituko duen.

Horregatik harritzen nau zelako arinkeriarekin ematen diren edonolako iritziak, nonahi: irratan,

telebistan, idatzizko medioetan edota sare sozialetan. Ez dakit noiz, iritzia emateko eskubidea, iritzia emateko betebeharra bihurtu zen, baina gaur egun hori ematen du, beharra. Obsesioa, kasu askotan.

Gure iritzia plazaratzea, edozein gai eta edozein esparrutan. Ez al dago neurritz kanpo baloratuta? Iritzi bat eduki al da gai guztiei buruz? Edo, iritzi bat eman behar da gai guztiei buruz? Zalantzak ditut.

Iritziaren arabera ezberdinduko nuke, badaude iritzi guztiz subjektiboak; nahiak, zaletasuna, gogoak, adierazteko ematen direnak; horiekin arrisku gutxiago dagoela uste dut. Baina pertsona ugari erasotzen dutenekin edo ezagutza espezifiko bat behar



*Alicia Lorenzo*

dutenekin, horiekin, kontuz ibili behar dela uste dut. Eta iritzi horien helburuari erreparatu behar ko diogu, askotan mina ematea edota gure burua goraiatzeko bakarrik eginak ematen baitute, eta hori arriskutsua da, oso.

Arriskutsua bada ere, adierazpen askatasunaren aldekoa naiz eta 2015eko "moxal legea" demokraziaren atzerapauso bat iruditzen zait. Beraz, erantzuna argi dago, edozein iritzi publikoki emateko eskubidea daukagu? Eskubidea bai, baina merezi du gizarte bezala ordaintzen dugun prezioa?

Kalte-ordainaren arabera... alegia, audientzia, "like" edo "atsegin dut" kopuruaren arabera.

“ Ez dakit noiz, iritzia emateko eskubidea, iritzia emateko betebeharra bihurtu zen ”

## Zer irakurri?

*M<sup>a</sup> Mar Huerga*



**L**iburu honetan alde komikoa eta ironia nahastu egiten dira, eta horregatik da hain berezia. Wladimir Kaminerren lehen liburua da, eta Berlineko eguneroko bizitzatik ateratako anekdota eta pasadizo originalak josita dago. 90.eko hamarkadaren hasieran kokatzen da. Errusiar etorkin ilegal batek bigarren solairutik jauzi egiten du deportatu ez dezaten, eta zorionez, NDP eskuin muturreko alderdiaren kartel baten gainera erorita, emeki-emeki lur-raino irristatzen da. Horrela hasten

**Errusiar diskoteka**  
**WLADIMIR KAMINER**  
Pasazaite, 2015

da istorio bitxi hau, eta hortik aurrera, eguneroko gauza xumeei etekin literario bikaina ateratzen die egileak.

Istoria Prenzlauer Berg auzoan garatzen da, ekialdeko Berlinen, harresia erori eta gero etorkinen eta okupen bilgune bihurtu zen auzoan. Oinarri autobiografikoa omen du, baina fikzioa eta erreallitatea askotan korapilatuta eskaintzen dira. Liburutegiak antolatutako euskarazko irakurketa klubean landuko den lehen liburua izango da Errusiar diskoteka, eta berau taldean aztertzeak zuku gehiago ateratzeko aukera eman du, seguru!

**SALGAI**

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukalde eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. © 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

**ALOKAGAI**

Pisua alokagai Ermua erdialdean. Altzariz jantzia. Bi gela, egongela, komuna, trasteroa eta sukaldea. 669 20 91 83.



Irailaren 25ean  
Zorionak Ainere!  
5 urte handi beteko dituzu. Patxo handi bat zure familia osoaren partez eta bereziki zure ahizpatxo Intzaren partez.



Urriaren 3an  
Zorionak Aitzol eta musu asko familia guztiaren partez, ondo pasa. Maite zaitugu.



Urriak 1  
Zorionak, zure 9. urtebetetzean!!!! Egin irribarre eta disfrutatu. Muxu asko familia osoaren partez.



Uztailaren 12an (Lur) eta abuztuaren 2an (Izar)  
Badoiaz aurrera gure marittrakak!!! Jarraitxu holako alai eta jator! Maitxe zaituztegu!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) helbidera.

Azken eguna: **Urriaren 17a.**



\* Uztaileko aldizkarian argazki hau kaleratu genuen, ez ordea bertan agertzen direnen izenak.  
Belauniko:  
Mari Carmen Dominguez Rodriguez, Jabier Zubiate Uria.  
Atzean:  
Nuria Dominguez Kortazar, Aitor Uriarte Iriondo, Victor Horcajada, Juanjo Delgado Ferrer, Jose Gonzalez Gonzalez, (ezezeguna) eta Manuel Moreno Martin.

**Enter**  
INFORMÁTICA  
SALMENTIAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA  
VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

arral97.com  
**arral**  
Telf.: 943 17 60 75  
banatzaile ofiziala  
- Luis Cañas familia - Pazo Señorans - Txakoli Akarregi  
- Añada Real - Vicente Gandía - Milana  
- Yllera taldea - Oriol Rossell - La Loca Juana  
- Gomez Cruzado - Astobiza txakolina - nitida  
arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería  
**TITANIC**  
  
Pintxo dastaketa poteoan  
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**  
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**Proba-Leku**  
Ileapaindegia - Estetika  
  
Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**

## MALLABIA 1958

Argazki hau 1958koa da, eta Hanbreko taberna aurrean aterata dago, bertan ospatu zuten Lazaro Txurrukaren ezkontza aurreko bazkaria. Lazarorekin batera agertzen dira:

Jose Antonio Urzuriaga, Manuel Sarasua, Elias Agirre, Florencio Sarasua, Rosi Zelaieta, Pascual Garitagoitia, Bernardo Sarasua, Santiago Urzuriaga, Santiago Astarloa, Carlos Garitagoitia, Martin Solozabal, Esteban Garitagoitia, Inaxio Mandiola, Edur Gisasola, Joxe Mari Larrañaga, Antonio Alberdi, Felix Urizar, Francisca Garitagoitia,

Tomas Sarasua, Juan Zelaieta, Leon Txurruka, Nieves Garitagoitia, Angel Zelaieta, Eduardo Garitaonaindia, Jose Luis Amillategi, Valentin Alberdi, Bernardo Mendazona, Pedro Zubizarreta, Pedro Mari Garitaonaindia, Javier Uriarte, Jose Uriarte, Jesus Garitagoitia, Maximo Amillategi, Jose Antonio Txurruka, Jose Sarasua, Felix Telleria eta Jose Luis Garitagoitia.



## ERMUA 1968



50 urte biribil bete dira argazkiko lagun koadrilak egindako paella-jan harena. Hanbreko taberna parean bazkaldu zuten, arbolapeko freskuran, abuztuaren 30 haren berotasunerako inon ere ez leku hobirik! Bapo-bapo eginda eta kafea hartu berritan, mahaiaren ezkeraldean daude Germán Milikua lepoa emanaz, Fernando Azkarate tente eta, barrenetik hasita, eserita daude Eufasio Moradillo, Juanito Txurruka, Ignacio Solozabal, Juantxi Urrengoetxea eta Félix Izagirre urrunera. Eskumaldekoak dira Alex Solozabal tente dagoena eta jarrita Roberto Etxaburu, Juantxo Arrieta, Roberto Tejada, Aitor Fuldain eta José Luis García.



IZASKUN TXURRUKA



Goienkate 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

[peluqueriaizaskun@gmail.com](mailto:peluqueriaizaskun@gmail.com)  
[peluqueriaizaskun.wordpress.com](http://peluqueriaizaskun.wordpress.com)

# Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

**Ordu aldaketa, bai ala ez?**

Jean-Claude Juncker Europako Batzordeko presidentea ordu aldaketa kentzeko deia egin die EBko herriei, eurek baitute ordu aldaketaren inguruan erabakia hartzeko eskumena. Izan ere, erakundeak berak bultzatutako galdeketa baten arabera, 4,6 milioi europarren %80 ordu aldaketa kentzearen aldekoak dira.

**Ordu aldaketa kentzearen alde zaude? Zergatik?**

Bai, ordu aldaketa kendu beharko zen, ez duelako ezertarako balio. Aukeran? Udako ordutegia. Baina erabaki hori adituek hartu behar dutela uste dut.

**Piedi Eizagirre**

Aldaketa kentzea nahiko nuke eta udako ordutegia urte osoan mantentzea. Neguan goizegi iluntzen du, 17:30ean, oraindik, bizitza handia dago gure kaleetan.

**Eneritz Arriaga**

Ez dut guztiz argi aldaketa kentzearen alde edo kontra nagoen. Argi daukadana da urtaroak aldatzean egunak ere aldatzen direla, beraz, logika behintzat baduela gure ordua urtaro horretara moldatzea. Azken batean, ez da berdina udako edo neguko egun bat, eta ordu aldaketarekin ezberdintasun hori orekatzea bilatzen da. Gainera, honekin batera energia aurrezten bada, hobe.

**Libe Buffay**

**OINAK**

**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
943 17 47 44

Zuri egokitzen den odontologia  
La odontologia que se adapta a ti

**SAN PELAYO**  
HORTEL KLINIKA Y CLINICA DENTAL

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1284

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04  
info@clinasanpelayo.com  
San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)

**OSASUNA • ESTETIKA**  
**EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat baino gehiago!!*

**Egokitutako burua garbitzeko konketa**

943 17 28 09 • Goienkale 12

**ZINEA**

**Hilaren 6tik 8ra:**  
"Book Club" +  
"Las distancias"

**Hilaren 13tik 15era:**  
"Predator" + "Oreina"

**Hilaren 20tik 22ra:**  
"El Reino" + "Un océano  
entre nosotros"

**Hilaren 27tik 29ra:**  
"Ha nacido una estrella"  
+ "Carmen y Lola"  
Ermua Antzokian.  
Hainbat ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 4:**  
"Nico 1988"

**Hilak 11:**  
"El capitán"

**Hilak 18:**  
"Kilian Jornet, camino  
al Everest"

**Hilak 25:**  
"Buenos vecinos"  
Ermua Antzokian.  
20:30ean.

**ERAKUSKETA**

**Hilaren 15tik 28ra:**  
Mikologiari buruzko  
argazkiak.  
18:00etatik  
20:00etara.

**MUSIKA**

**Hilak 5:**  
Kontzertua: Revólver.  
"Básico" diskaren 25.  
urteurrenaren bira.  
22:15ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 15€

**Hilak 6:**  
Kontzertua: Radio  
Revolución.  
México rebelde  
jardunaldia.  
19:30ean.  
Orbe  
kardinalaren plazan.

**Hilak 19:**  
Musikala:  
"Forjarien kanta".  
Eibarko Koro gaztea eta  
Forjarien bandaren  
eskutik.  
22:15ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 8€

**Hilak 20:**  
Blues kontzertua:  
A Contrablues.  
20:00etan.  
Lobiano Kultur Gunean.  
Sarrera: 8€

**Hilak 26:**  
Kontzertua:  
Izaro. 22:15ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 8€

**UMEENTZAKO  
ZINEA**

**Hilak 7:**  
"Los Futbolísimos"

**Hilak 14:**  
"Go!azen"

**Hilak 21:**  
"Ana y Bruno"

**Hilak 28:**  
"Alpha"  
Ermua Antzokian.  
20:30ean.

**UMEENTZAKO  
EKITALDIAK**

**Hilaren 5, 19 eta 26an:**  
Haurrentzako jolasak:  
Barixakuetan.  
17:30ean. Orbe  
kardinalaren plazan.

**Hilak 6:**  
Haurrentzako  
ipuin-kontaketa  
ingelesean. 17:30ean.  
Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 20:**  
Haurrentzako Ikuskizuna:  
"Kontu kantari 2",  
La enana naranja  
taldearen eskutik.  
17:00etan.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 4€

**ANTZERKIA**

**Hilak 12:**  
"Espacio disponible",  
Perigallo Teatroaren  
eskutik. 22:15ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 10€

**BESTELAKOAK**

**Hilaren 7ra arte:**  
Gaztela-Leoneko Kultur  
Zentroaren astea.  
Gaztela-Leoneko  
Zentroan eta Orbe  
kardinalaren plazan.

**Hilaren 12tik 28ra:**  
Mendi, kultur eta kirok  
jardunaldiak: hitzaldiak,  
diaporamak, zine  
emanaldiak eta mendi-  
irteerak. Ermua  
Antzokian eta  
Lobiano Kultur Gunean.

**Hilaren 22tik 28ra:**  
Andaluziako Kultur  
Zentroaren astea.  
Andaluziako Zentroan  
eta San Pelaio plazan.

**Hilaren 25etik 28ra:**  
Mikologiari buruzko  
jardunaldiak: hainbat  
ekitaldi. Lobiano Kultur  
Gunean eta Orbe  
kardinalaren plazan.

Patxi López



**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO  
arraindegia**



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com



**ALBOKA**




**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

# GREMIOEN

## GIDA



**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA  
**LUIS VALLE**  
Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56  
Tailerra  
943 17 23 56  
Goienkale z/g

**PERTSIANAK**  
**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:  
Zoarreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

**ETXE-BIRGAITZEAK**

BERRITZE LANAK  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOK  
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina - Zoharkalea, 36, 3° - 48260 Ermua - Bizkaia

**ETXETRESNAK**

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) - 943 17 66 08

**ELEKTRIZITATEA**

**BETA**

ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13      943 17 65 25  
689 23 31 71

**ERROTULAZIOA**

**ROTEK**  
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrial-  
dea  
C-1 partzela, 5 behea

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

**aek** euskara  
praktikoa

**Zu hemen zaude,  
AEK ere bai**

100 euskaltegi baino  
gehiago Euskal Herri osoan



**EUSKARA-IKASTAROAK**

**EUSKALTEGI  
BERRIA**

## **Ermuko Kaltxango AEK**

Euskalduntzea

4. maila (C2) aurrez aurre

Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

Autoikaskuntza

Mintza-taldeak

Berbalagun

Txandaka aritzeko aukera

%100era arteko diru-laguntzak

**AZKEN EGUNAK**

Zeharkale 16, behea. Ermua

**943 17 19 40 · 607 623 961 · kaltxango@aek.eus**